


KIROLETAKO ESKUALDE BULEGOAK

01. BIDASOA / OIARTZUN



IRUN

NOLA IRITSI?



Artaleku Udal Kirolegia
Karrika Nagusia, 30 • 20304 Irun
943-630351 943-630351
dep.irun@gipuzkoa.net
Asteazkena: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00
Ostirala: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00

02. DONOSTIALDEA



DONOSTIA

NOLA IRITSI?



Kirol Etxea
Anoeta, 5 • 20014 Donostia
943-473171 943-459593
ofcodpte@gipuzkoa.net
Astelehena: 09:00-14:00 eta 16:00-19:00
Osteguna: 09:00-14:00 eta 16:00-19:00

03. UROLA KOSTA



ZARAUTZ

NOLA IRITSI?

Urolatik:
Azkoitia-Zarautz
La Guipuzcoana autobusak
Kostatik:
Donostia-Zarautz-Zumaia L2

Igerain Aterpetxea
San Inazio Kalea, 25 • 20800 Zarautz
943-130067 943-130006
dep.zarautz@gipuzkoa.net
Astelehena: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00
Osteguna: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00

04. DEBA-BEHERA / DEBA-GARAIA



EIBAR

NOLA IRITSI?

Donostia-Eibar
Eibar-Eskoriatza
Ardanza geralekuak

Ipurua Futbol Zelaia
Ipurua Kalea, 4 • 20600 Eibar
943-207071 943-207071
dep.eibar@gipuzkoa.net
Asteazkena: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00
Ostirala: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00

05. GOIERRI / ORIA



ORDIZIA

NOLA IRITSI?

Ordizia
Goierrialdea autobusak

Torraa
Santa Maria, 4-1. ez. • 20240 Ordizia
943-889545 943-889545
dep.ordizia@gipuzkoa.net
Astelehena: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00
Osteguna: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00

Gipuzkoako Foru Aldundiak hobekuntza administratiboa du lehentasunetarikoa bat, bai administrazio arin, eraginkor eta eragilea lortzeko eta bai administrazio gardena eta lankidetzalea bermatzeko, betiere Gipuzkoak dituen beharretara eta bertako gizartearen zerbitzura jarria.

Asmo horrekin zerbitzuen karta aurkezten dira. Zerbitzuen karta tresna baliagarriak dira eskatu daitezkeen prestazioak herritarrek errazago ezagutzeko eta Aldundiko arlo bakoitzak bere zerbitzuen kalitatea hobetzearren hartu dituen konpromisoen berri emateko.

Modu horretan, eta zure laguntzaz baliatuta, areago hobetu nahi dugu foru zerbitzu publikoak erabiltzen dituztenen asebetetze maila.

Joze Joan Gonzalez de Txabarri
Gipuzkoako Diputatu Nagusia

Xedea

Eskualdeetako kirol bulegoen zeregina, administrazio eta aholkularitza zerbitzuak Gipuzkoako Kirol Sistemako eragileei hurbiltzea da.

Arautegia

Apirilaren 26ko 26/2005 Foru Dekretua, Herritarrek Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko harremanetan dituzten eskubideak, herritarrentzako laguntza eta arreta zerbitzuak arautzen dituena.

Otsailaren 22ko 8/2005 Foru Dekretua, Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren Kirol gaietan dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duena.
Martxoaren 7ko 11/2006 Foru Dekretua, Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren kirol gaietako diru laguntzak emateko araubidea onartzen duen 8/05 Foru Dekretua aldatzen duena.

Martxoaren 7ko Foru Agindua, 08/05 Foru Dekretuko kirol alorreko diru laguntzak eman eta kuantifikatzeko irizpideen haztapena onartzen duen 27/05 Foru Agindua aldatzekoa.

Uztailaren 13ko 109/2006 Foru Agindua, 2006/2007 ikasturterako eskola kiroleko ekintzen egitaraua onartzeari buruzkoa.

Uztailaren 13ko 110/2006 Foru Agindua, 2006-2007 ikasturteko eskola kiroleko ekintzetan gertakari bereziak konpontzeko prozedura arautzeari buruzkoa.

Uztailaren 13ko 111/2006 Foru Agindua, 2006-2007 ikasturteko eskola lehiaketetan baimenak emateko prozedura arautzeari buruzkoa.

Zerbitzu Karta honen ardura duen atala

Karta honen ardura Kirol Zerbitzuak dauka, Zerbitzu Publikoen Kalitate Zuzendaritza Nagusiaren lankidetzaz.

Zerbitzuen Karta

Kiroletako Eskualde Bulegoak



Gero eta hurbilago



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte eta erakunde harremanetarako Departamentua
Departamento para las Relaciones Sociales e Institucionales

ZEIN ZERBITZU ESKAINTZEN DITUGU?

Informazioa, aholkularitza eta kontsultak:

- Diru laguntza lerroei buruzkoa.
- Eskola kiroleko programari buruzkoa.
- Eskualde mailako kirol eragileei eta jardueri buruzkoa.
- Kirol arloko beste zerbitzu batzuei buruzkoa.



Eskola kiroleko kudeaketak:

- Izen-emateak eta baimenak.
- Lizentziak eta fitxa osagarriak ematea.
- Istripu-agiriak bideratzea eta hauen jarraipena egitea.
- Datuak gainbegiratzea eta egiaztatzea (izen-emateak, baimenak, joan-etorrietarako eta kirol materialerako diru laguntzak).
- Udalekin batera eskola kiroleko programa garatzea.



Diru laguntzen kudeaketa:

- Diru laguntzen kanpainaren hasierari buruzko informazioa ematea.
- Diru laguntza egokienak eskatzeko aholkularitza eskaintzea.
- Eskaera zuzen egiteko aholkularitza eskaintzea.
- Idatziz edota webaren bitartez egindako eskaerak jasotzea.
- Diru laguntzen egoeraren jarraipena egitea.



- Sarrera-erregistroa:** Ondorengo helbideetara doazen agiriei sarrera ematea eta konpultsatzea.
- Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentura doazenei.
 - Gipuzkoako Foru Aldundiko beste departamentuetarakoei.
 - Aldundiarekin hitzarmena sinatu duten administrazioetara doazen agiriei.

NOLA IZAN ZAITEZKE LANKIDE?



Behar bezala betetako agiriak aurkeztuz (Ikaslearen argazkia + Ikaslearen sinadura + Gurasoen sinadura).

Edozein motatako eskari edota iradokizun eskualdeetako kirol bulegoan jakinaraziz.

Kirol Zerbitzuko datu-basean erakundearen datuak eguneratuta edukiz (telefono honetara deituz: 943-458357, edota helbide honetara mezu elektronikoa bidaliz: eroldak-censos@gipuzkoa.net)

Pertsonaren nortasuna eta erakunde eskatzailearekin duen harremana egiaztatuz.



Herritarren eskubideak

Herritarrek Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko harremanetan dituzten eskubideak 2005eko apirilaren 26ko 26/2005 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren herritarrentzako laguntza eta arreta zerbitzuak arautzekoak (GAO 101 zk., 2005eko maiatzaren 31koa) 4. artikuluan zehazten ditu.

Kexak eta iradokizunak

Gipuzkoako Foru Aldundiak kexak eta iradokizunak aurkezteko sistema bat ezarri du, eskaintako zerbitzuei buruz zure iritzia emateko aukera izan dezazun.

Kexak eta iradokizunak Aldundiaren edozein erregistroan aurkez daitezke, postaz edo internet bidez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 30 lan eguneko epea du erreklamazioei erantzuteko.



Zerbitzuak zure laguntzaz hobetu nahi ditugunez, eskertuko genizuke asebetetze mailari buruz aurkezten zaizkizun inkestak beteko bazenitu.

Konpromisoak betetzea

Zerbitzuen karta honetako konpromisoak zenbateraino betetzen diren ezagutzeko, kontsultatu urteko emaitzak honako web orrietan:

www.kirolzerbitzua.net
www.gipuzkoa.net/DFG



Zerbitzu Publikoen Kalitate Zuzendaritza
Dirección de Calidad en los Servicios Públicos

Informazioa
www.kirolzerbitzua.net

ZEIN ZERBITZU ESKAINTZEN DITUGU?

ZEIN DIRA GURE KONPROMISOAK?

NOLA NEURTZEN DITUGU?

Informazioa, aholkularitza eta kontsultak:

- Diru laguntza lerroei buruzkoa.
- Eskola kiroleko programari buruzkoa.
- Eskualde mailako kirol eragileei eta jarduerari buruzkoa.
- Kirol arloko beste zerbitzu batzuei buruzkoa.



Guregana zuzendutako Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialean errespetuz eta adeitasunez erantzutea, ahoz nahiz idatziz.

Eskualdeetako kirol bulegoetako zerbitzuei buruzko informazioa ematea Gipuzkoako udal eta klubei.

Kontsulten %80 momentuan erantzutea eta gainerakoak (konplexutasun tekniko handiagokoak eta posta elektronikoz bidalitakoak) 3 lanegunetako epearen barruan.

Eskualdeko kirol bulegoak behintzat astean bi arratsalde irekitzea.

- Eskatutako hizkuntzan erantzun zaien portzentaia aztertuz (=100%).
- Gai honi buruz jasotako kexuak aztertuz (<5 urtean).
- Kirol eragileen pertzepzioa zein izan den ebaluatuz (>%75 kalifikazio onarekin).

- Eskualdeetako kirol bulegoetako zerbitzuak ezagutzen dituzten klubuen portzentaia aztertuz (>%60).
- Eskualdeetako kirol bulegoetako zerbitzuak ezagutzen dituzten udalen portzentaia aztertuz (=100%).

- Epean erantzundako kontsultak aztertuz.
- Emandako erantzunen epeari buruzko asebetetze maila aztertuz (>%75 kalifikazio onarekin).

- Ordu-tegiari buruzko asebetetze maila ebaluatuz (>%75 kalifikazio onarekin).

Eskola kiroleko kudeaketak:

- Izen-emateak eta baimenak.
- Lizentziak eta fitxa osagarriak ematea.
- Istripu-agiriak bideratzea eta hauen jarraipena egitea.
- Datuak gainbegiratzea eta egiaztatzea (izen-emateak, baimenak, joan-etorrietarako eta kirol materialerako diru laguntzak).
- Udalekin batera eskola kiroleko programa garatzea.



Eskualdeetako kirol bulegoetako seinale elebidunak hobetzea, erraz antzeman daitezen.

Eskola Kiroleko baimen bikoiztuak eta kanpainaz kanpo (Gabonetako oporraldiaren ondoren) egindako izen-emateak tramitatzea.

Harremanetan egotea herri edota eskualdeetako batzarrekin kiroleko urteko programaren berri emateko (berritasunak, gorabeherak...), eta, baita, eginiko eskari eta iradokizunak ezagutu eta Kirol Zerbitzuari jakinaraztea ere.

- Seinaleak egokiak direla uste dutenen portzentaia ebaluatuz (>%75 kalifikazio onarekin).

- Momentuan bideratutako lizentzien portzentaia aztertuz (=100%).
- Jasotako kexuak aztertuz (<5 urtean).

- Eskualdeetako kirol bulegoekin izandako harremanei buruzko hautemate maila aztertuz (>%75 kalifikazio onarekin).

Diru laguntzen kudeaketa:

- Diru laguntzen kanpainaren hasierari buruzko informazioa ematea.
- Diru laguntza egokienak eskatzeko aholkularitza eskaintzea.
- Eskaera zuzen egiteko aholkularitza eskaintzea.
- Idatziz edota webaren bitartez egindako eskaerak jasotzea.
- Diru laguntzen egoeraren jarraipena egitea.



Gure datu-baseetako kirol eragile guztiei posta elektronikoz kirol diru laguntzen deialdia bidaltzea, GAOn argitaratutakoan.

Kiroletako diru laguntzen eskaeren egoeraren berri ematea eskualdeetako kirol bulegoekin harremanetan jartzen diren momentuan, Internet bidez ezagutzeko aukerarik ere izanik.

Kiroletako diru laguntzak eskatzeko betebeharrak guztien informazioa momentuan ematea.

Kirol eragileei eskualdeetako kirol bulegoetako baliabide telematikoak erabiltzen uztea eta horiei buruzko aholkularitza eskaintzea, bai diru laguntzen eskaerak egiteko, baita Eskola Kiroleko izapideak egiteko ere.

- Epean bidalitako posta elektronikoen portzentaia kalkulaturaz (=100%).

- Diru laguntzen egoerari buruz momentuan erantzundako kontsulten portzentaia kalkulaturaz (=100%).

- Kontsulta bakarrean emandako erantzunen portzentaia aztertuz (=100%).
- Jasotako informazioari buruzko asebetetze maila ebaluatuz (>%75 ona).

- Izapide telematikoak egiteko aukerari eta emandako aholkularitzari buruzko balorazioa ebaluatuz (>%75 kalifikazio onarekin).

Sarrera-erregistroa: Ondorengo helbideetara doazen agiriari sarrera ematea eta konpultsatzea.

- Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentura doazenei.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko beste departamentuetarakoei.
- Aldundiarekin hitzarmena sinatu duten administrazioetara doazen agiriari.



Gipuzkoako Foru Aldundira zuzenduriko edozein agiri erregistroan sartzea eskualdeko bulegoan aurkezten den une berean.

- Momentuan erregistratutako agiriaren portzentaia kalkulaturaz (=100%).
- Gai honen gainean jasotako kexuak aztertuz (=0 urtean).